

## - ETXEPARE EUSKAL INSTITUTUA - 2017-2020 ILDO ESTRATEGIKOAK

### Aurkibidea

#### Sarrera

##### 1. Koordinazioa eta elkarlana

###### 1.1 Eusko Jaurlaritza

###### 1.2. Beste erakundeak

##### 2. Hazkunde kualitatiboa

###### 2.1. Irakurletza sarearen indartzea

###### 2.2. Euskara Munduan

###### 2.3. Kulturaren sustapenerako ekimenen berrikustea

##### 3. Ikusgaitasuna

###### 3.1. Sortzaile, kultura profesional eta akademikoen nazioarteko sarea

###### 3.2. Nazioarteko inpaktua duten ekintzak

###### 3.3. Marka eta irudi plana

##### 4. Diplomazia Kulturala

###### 4.1. EUNIC eta Kultura Diplomaziaren Europako Estrategia

###### 4.2. Mugaz gaindiko kultura lankideta

### SARRERA

Etxepare Euskal Institutua 2007ko apirilaren 20ko 3/2007 Legearen bidez sortu zen, eta xede ditu euskararen irakaskuntza, ikasketa eta erabilera munduan sustatzea eta nazioartean onartua izan dadin laguntzea; euskal kulturaren sustapena; euskal kulturari buruzko ikerketa sustatzea, bereziki unibertsitate eta goi ikerkuntzako erakundeetan; eta gure herrialdeko errealitatea euskaraz hitz egiten duten mundu osoko kolektibitateetara eta hainbat herritara hurbiltzea, herri horietan euskal komunitateak dituztelako edo herri horiekiko harreman historiko, kultural edo komertzialen garrantziak hala aholkatzen duelako.

Legeak jasotzen duen bezala, Etxepare Institutuak, euskal kultura, bere hizkuntza ofizialetako edozeinetan, kanpoan ezagutarazten eta hedatzen lagunduko du, beti ere bereziki euskaraz sortutako kultura-eskaintza sustatuz eta bermatuz. Era berean, Etxepare Euskal Institutuak arreta berezia jarriko dio, bere jardueretan, euskal komunitate linguistikoaren herrialde eta herrietako hizkuntza eta kultura ondare komunari.

2010eko amaiera aldera abiarazi zenetik, Etxepare Euskal Institutuak arrakastaz ezarri ditu bere jardueraren oinarriak, hartara bere xedeak betetzeko. Horrela, sei urteko ibilbidearen ondoren, orain fase berri baten atarian dago, sendotze eta hazkunde kualitatiboaren bila, eta horiek lortu nahi ditu legealdi berri honen denboran (2016-2020). Sendotze fase honi ekiteko, Institutuak lau oinarritzko ardatz planteatzen ditu jardueran aurrera egiteko.

## **1. KOORDINAZIOA ETA ELKARLANA**

Euskara eta euskal kultura munduan sustatzeko eta zabaltzeko erakunde-baliabide nagusi den aldetik, Etxepare Euskal Institutuak koordinazio eta lankidetzaren eraginkor bat izan behar du xede berak dituzten beste bertako erakunde eta eragile garrantzitsuekin. Zentzu horretan, oinarritzkoa da identifikatzea, erakunde horiek zein diren ez ezik, zein diren koordinazio eremuak. Orobat, komunikazio arin bat eta lan dinamika eraginkor bat ezarri behar dira.

### **1.1. Eusko Jaurlaritza**

Institutuak lehentasun du koordinazio instituzional eta funtzional bat izatea Eusko Jaurlaritzarekin, oro har, eta Kultura eta Hizkuntza Politika Sailarekin, bereziki, haren egituraren baitago. Sailak Etxepare Institutua lanabes nagusi du kultura nazioartekotzeko eta kultura diplomaziarako; ondorioz, estrategia komun baten diseinuari ekin dio, norberaren ekintzak egokitzeko asmoz. Koordinazio hori zenbait erabaki estrategikotan gauzatu da: CREADIS3 Europako proiektuaren kudeaketa partekatua Kultura Sustatzeko Zuzendaritzaren eta Etxepare Institutuaren artean; Etxepare Institutua gobernuaren NPLD sareko ordezkari sartzeko (Network for the Promotion of Language Diversity), edo Euskara Munduan programaren kudeaketaren eskualdatzea, HABEtik Etxepare Institutura.

Helburu horrek berak eragiten du estrategikoki lehentasunezkoa izatea Kanpo Harremanetarako Zuzendaritzarekin harremana sendotzea, hartara, batetik, indarrak batzeko nazioarteko ekintzan eta, bestetik, Institutua zuzendaritza horrek koordinatzen duen Basque Country estrategiarekin lerrokatzeko. Sailburuaren ekimenez, Etxepare Institutuak orain Kultura eta Hizkuntza Politikako Sailaren ordezkari bat betetzen du Kanpo Harremanetarako Zuzendaritzak sustatutako zenbait forotan: Kanpo Harremanetarako Sailarteko Batzordean edo Euskal Gizataldeekiko Harremanetarako Aholku Batzordean, adibidez. Hori erabakigarria izango da zuzendaritzarekin koordinazio eraginkor bat izateko legealdi osoan zehar. Koordinazio horren lehen ondorioa da Etxepare Institutua oraintxe elkarrizketetan aritzea Kanpo Harremanetarako Idazkaritzarekin, hartara ekintza zehatzak burutzeko Jaurlaritzak nazioarteko bazkide estrategikoekin sinatu dituen lankidetzak akordioen markoan: Flandriako Gobernuarekin edo Kanadako Gobernuarekin, esate baterako.

Basque Country estrategiari dagokionez, gobernuak helburu du estrategia hori eguneratzeko prozesu batekin hastea 2017-2020 aldiari begira, eta nazioartekotzeko plan berezi bat aurreikusten du kulturaren alorrean. Kultura plana Basque Country estrategia mamitzen duten alorreko lau planetako bat izango da (Industria, Turismoa eta Kanpo Harremanekin batera), eta Etxepare Institutuak rol nagusi bat izango du plan berezi horren definizioan eta garapenean.

Orobat ezarriko dira lan eta koordinazio dinamikak gobernuko beste sail batzuekin, baldin eta haien ekintza estrategikoa bada Institutuaren jardura garatzea: adibidez, Ekonomiaren Garapen eta Azpiegitura Saila, aintzat hartuta hark kultura eta sormen industriei laguntzeko eta sustatzeko duen rol nagusia; edo SPRI enpresa-garapenerako euskal agentzia, industria horien Nazioartekotzeko politikak sustatzeko balizko eragile den aldetik. Konplizitate bilaketa horretan, Etxepare Institutuak Kultura eta Hizkuntza Politikako Sailarekin batera lan egingo du Kultura eta Sormen Industriak laguntzeko eta sustatzeko estrategia bat definitzeko.

Aldi berean, Hezkuntza Sailarekin ere proiektuak koordinatu eta bateratu nahi dira, bereziki Unibertsitate eta Ikerketa Sailburuordetzarekin, hartara nazioarteko estrategian indarrak batzeko. Zentzu horretan, sareak eta esperientziak partekatzeko asmoz, unibertsitate

esparruan dauden erakunde egokiak identifikatu nahi dira, Euskampus Fundazioa edo Agirre Lehendakaria Center, adibidez.

Azkenik, Turismo, Merkataritza eta Kontsumo Sailak –eta Basquetour agentziak ere bai– aliatu bat izan behar du Etxepare Institutuarentzat, lan handia egiten baitu Herrialdea kanpoaldean proiektatzeko eta euskal kultura nazioartean sustatzeko.

## **1.2. Beste erakundeak**

Euskararekin eta euskal kulturarekin zerikusia duten jarduera eta proiektuak garatzen direnez, maiz nazioarteko bokazioz, Etxepare Institutuak helburu du lankidetzaren harreman egonkorrak izatea inguruko beste erakunde eta eragile batzuekin, izan Euskadiko Autonomia Erkidego barrukoak, izan kanpokoak (euskararen eremu geografikoak).

EAEko beste erakunde batzuk, direla erakunde publikoak (Eusko Legebiltzarra, hiru lurraldeetako batzar nagusiak, aldundiak eta hiriburuetako udalak), zenbait kultura eragile (Euskaltzaindia, Kontseilua, Azkue Fundazioa) edo kultura proiektu traktoreak (Guggenheim Museoa, Bilboko Arte Ederren Museoa, Tabakalera, Azkuna Zentroa, DSS2016EU, Artium).

Donostia / San Sebastián 2016 Fundazioaren legatuari dagokionez, Institutuak konpromisoa hartu du Kultura Hiriburutzaren barruan elkarrekin sustatutako bi proiektuekin: Etxeparek Itzultzaile Berriak proiektua burutzeko ardura hartuko du, eta jarraipena emango die Joan-etorriak programaren barruko euskal artisten kanpoko egonaldien deialdiei. Institutua, halaber, prest agertu zaio Fundazioari proposatzen zaizkion beste gai edo proiektuetan lankide izateko.

EAEtik kanpoko beste erakunde batzuk, bai erakunde publikoak (Nafarroako Gobernua, Ipar Euskal Herriko Herri Elkargoa), bai zenbait kultura eragile (Euskal Kultur Erakundea, Euskararen Kultur Elkargoa), bai kultura proiektuak (Baionako Euskal Museoa, Jorge Oteiza Fundazio Museoa).

Zentzu horretan, hurrengo lau urteetan izango dugun egoera berria nabarmendu behar da. Izan ere, Nafarroako Gobernua Akitania-Euskadi Euroeskualdean sartu da (orain Akitania

Berria-Euskadi-Nafarroa), eta Ipar Euskal Herriko Herri Elkargoa sortu berria da. Prozesu horiek nola garatzen diren ikusi bitartean, aurreikusten da biek baterako lan aukera berriak eskainiko dituztela euskararen eta euskal kulturaren sustapenari dagokionez.

## **2. HAZKUNDE KUALITATIBOA**

Etxepare Institutua erakunde gaztea da. 2007an sortua eta 2010eko amaiera aldera abiarazia, sei urteko ibilbide honetan garapen eta zabalkunde nabarmenak izan ditu, krisi ekonomikoak eta aurrekontu murrizpenek berekin ekarri dituzten zailtasunak gorabehera (% 33ko aurrekontu murrizpen bat 2013an). Baliabideetan egoera zaila luzatu egingo dela aurreikusita, behartuta gaude hazkunde kualitatibo eta ongi planifikatu bat izatera, jada sortuak dauden sareak sendotuz eta beste erakunde batzuekin lankidetzan arituz; baita funts pribatuak kaptatzera ere.

### **2.1. Irakurletza sarearen indartzea**

Etxepare Institutuak azken sei urteotan izan duen zabalkundearen erakusle on da irakurletza eta katedra sarea, ibilbide motzean ederki sendotu dena: 34 irakurletza eta 8 katedra nazioarteko unibertsitateetan, laguntzen dutenak erakundearen oinarrizko helburuak betetzen: euskararen irakaskuntza, ikasketa eta erabilera mundu osoan sustatzea; eta euskarak nazioartean onespina lor dezan bultzatu eta sustatzea. 2011n, Etxepare Institutuak 25 irakurletzaren kudeaketa bere gain hartu zuen, aurretik Eusko Jaurlaritzaren Hizkuntza Politikako Sailburuordetzak sortu eta kudeatzen zituenak. 2011tik sarea % 36 hazi da, eta 34 irakurletza kudeatzen ditu egun Etxepare Institutuak Europan, AEBetan, Latinoamerikan eta Asian. Horrez gain, zortzi katedra sortu ziren, eta horiek erabakigarriak dira euskal hizkuntzaren eta kulturaren prestigioa munduan sustatzeko.

Etxepare Institutuak irakurletza eta katedra sarea zabaltzen jarraitu nahi du, horretarako irizpide akademiko zurrinak jarraituz (unibertsitateen kalitatea, unibertsitate rankingetan agertzen direla ziurtatuz; irakurletzak edo katedrak txertatzen diren departamentuen egokitasuna; irakurletza edo katedra horiek modu egokian kokatuta egotea unibertsitate

horietako graduako edo graduondoko ikasketetan) eta beste faktore batzuk ere kontuan hartuz: euskal akademikoak egonkorki izatea nazioarteko unibertsitateetan, unibertsitate horiek dauden herrialdeetan euskal komunitateak izatea edo herrialde horiekin ditugun harremanen garrantzia (harreman historikoak, kulturalak edo ekonomikoak). Katedrei dagokienez, orain arte oinarrizko eremu zientifikoei buruzko ikerketa bermatu delarik euskal kulturaren ikasketen barruan (hizkuntzalaritza, literatura, artea edo antropologia), orain euskal kulturari buruzko irakurketa eta ikuspuntu zabalagoak ustiatu nahi ditugu katedra berriak sortzeko; horretarako, ikertu beharreko gaiak zabalduz.

Etxepare Institutuak baliabide mugatuak ditu, eta horrek zalantzarik gabe baldintzatu egingo du irakurletza eta katedra sarea zabaltzea, sare horretarako aurrekontua nagusiki sarea egonkortzeko eta indartzeko izango baita. Zentzu honetan, lehentasunezko zat jotzen dugu Institutuaren eta sareko 28 irakurleen arteko loturak sendotzea, haiekin dugun eta haien arteko komunikazioa sendotuz, Institutuaren jardueran parte har dezaten erraztuz eta nork bere unibertsitatean duen dinamizatzailer kulturalaren rola indartuz. 2013ko aurrekontu murrizketek eragin zuten irakurletzetako zenbait kultura jardueraren antolakuntzarako aurrekontua ezabatzea; ondorioz, irakurleek baliabide gutxi zituzten kultura ekintzak eta programak garatzeko eta, ondorioz, jende gehiago erakartzeko beren jardura edo eraginpeko eremuetara. Alabaina, zenbait esperientzia berrik, Poznango Adam Mickiewicz Unibertsitatean antolatu den Euskal Jaia arrakastatsuak adibidez (gure irakurletzako ikasleek antolatua euskal kultura hirian zabaltzeko), erakusten dute irakurletzek indar handia izan dezaketela kultura sustatzeko foku gisa, unibertsitatearen barrutitik harago. Horregatik, lan ildo hori sakontzeko, irakurleekin lan egiteaz gain, orobat garatuko dugu koordinazio estrategia bat gure euskara eta kultura alorren artean, hartara Institutuak antolatzen, laguntzen eta ekoizten dituen ekintzek (bakarka edo beste erakunde batzuekin lankidetzan) gure irakurleak eragile antolatzaile, lankide edo dinamizatzailer izan ditzaten.

Halaber, helburu dugu gure irakurleekin batera estrategia akademiko bat diseinatzea, euskal gaii buruzko ikerketa lanak sustatuz nazioarteko unibertsitateetan. Xede berarekin, lankidetzaren harremanak abiaraziko ditugu nazioarteko unibertsitateetan egonkor dauden euskal akademikoekin, nahiz eta gure irakurletza edo katedra sarekoak ez izan. Era berean,

Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzarekin elkarlanean irakurletza hauetan euskararen ezagutza egiaztatzeako probak antolatu eta eskainiko dira.

## **2.2. Euskara Munduan**

Berriki, Hizkuntza Politikako Sailburuordetzak erabaki du Euskara Munduan programa HABEtik Etxepare Institutura eramatea, eta hori mugarri bat da erakundearen ibilbidean. Orobat erabaki du euskararen sustapen eta difusioan burutzen duen jarduera nabarmen zabaltzea. Kudeaketari dagokionez ere erronka bat da, lan eremu berri bat gehitzen baitzaigu, Euskal Etxeak, orain arte HABEK kudeatzen zuena Kanpoan den Euskal Komunitatearentzako Zuzendaritzarekin batera. Egun, Euskara Munduan programa eskualdatzeko prozesua planifikatzen ari gara HABEko arduradunekin, baldintza teknikoei eta giza baliabide eta baliabide ekonomiko egokiak eskualdatzeari begira, programa horrek kudeaketa bikaina izan dezan etorkizunean.

Dena dela, guretzat Euskara Munduan programa kudeatzea aukera bikaina da, aukera bat euskara irakaskuntzan dugun jarduera eremua zabaltzeko, mundu akademikotik harago; eta aukera bikain bat harreman zuzen eta instituzionala ezartzeko munduko Euskal Etxeen sarearekin. Gure estrategian sartu nahi ditugu Euskal Etxeak, lankidetzaren eragile garrantzitsu diren aldetik ekimen eta proiektu berriak abiarazteko, beraien eragin eremuetan. Horrela, ulertzen dugu Euskara Munduan-en kudeaketak aukera emango diola, azkenik, Institutuari legeak ematen dion zeregin nagusietako batean sakontzeko: "Gure herrialde errealtatea euskaraz hitz egiten duten mundu osoko kolektibitateetara eta hainbat herritara hurbiltzea, herri horietan euskal komunitateak dituztelako edo herri horiekiko harreman historiko, kultural edo komertzialen garrantziak hala aholkatzen duelako".

## **2.3. Kulturaren sustapenerako ekimenen berrikustea**

2016ko amaiera aldera kultura sustatzeko eta zabaltzeko zuzendaritza sortu ondoren, Etxepare Institutuak sendotu egin du bere barne egitura; horrek, zalantzarik gabe, oreka handiagoa emango dio bere bi ekintza alorren artean: euskara sustatzeko eta zabaltzekoa, eta euskal kultura sustatzeko eta zabaltzekoa.

Kultura alorreko jardueraren zati nagusia lau lan ildo nagusien bidez bideratuko da:

- Sortzaile eta kultura profesionalentzako laguntza deialdiak
- Nazioarteko azoka profesionaletan parte hartzea eta bertan enpresei laguntzea, ahalik eta probetxu handienarekin
- Euskal entitate, elkarte eta eragileen nazioartekotze ildoei laguntzea
- Lankidetzan ildo zehatzak erakundeekin, programazioak eta nazioarteko sareak, hartara bermatu dadin gure adierazpide kulturalak eta gure artistak parte hartu eta agertzen direla.

Azken bi ildoak hitzarmen, akordio eta babes-kontratuen bidez bideratuko dira. Jakitun gara aurrekontuen zatirik handiena laguntzen deialdietarako dela. Hori dela eta, etorkizunean Etxepare Institutuak bilatuko du zenbait erakunderekin harremanak eraikitzea haien konplizitatearen bila Institutuak planifikatzen eta kudeatzen dituen proiektuak finantzatzeko, ez alferrik ibilbide frogatu bat eta nazioarteko sare sendotu bat baititu. Finantzazio publiko eta pribatua lehentasunezko xede bat da, hartara jauzi kualitatibo bat emateko kultura sustatzeko eta zabaltzeko jardueren programan. Horrela, hurrengo hilabeteetan estrategia bat diseinatuko dugu erakunde publikoa nahiz pribatuen funtsak eskuratzeko, eta hurrengo urteetan garatuko dugu hori.

Laguntzen deialdiei dagokienez –hainbat diziplina profesional hartzen dituztenak: musika, dantza, arte eszenikoak, zinema, literatura, eta arte plastiko eta ikusizkoak–, 2013ko aurrekontu murrizpenek behartu zuten laguntza horiek gogor murriztera, baita batzuk ezabatzerare, deialdi orokorra kasu. Deialdi hori nazioartekotzeko aukera baliotsua zen ohiko deialdietatik kanpo geratzen ziren profesional eta eragile kulturalentzat: tradizioko dantza taldeak, abesbatza elkarteak, diseinuaren edo modaren profesionalak, eta abar. Helburu dugu deialdi hori berreskuratzea eta horrek, nahiz baliabide oso mugatuekin izan, bide bat zabaltzen du eragile eta profesional kultural horien nazioarteko difusiorako. Etxepare Institutura iristen diren eskaerak askotarikoak dira, eta horrek eragin du erabaki hori. Hurrengo urteetan ere irautea nahiko genuke.



Deialdi orokorra berriz sartzea 2017an egin dugun deialdien berrantolaketan dator. Espero dugu hurrengo urteetan ere horretan sakontzea.

Aldi berean, zenbait harreman eta baterako hausnarketa izan ondoren Kultura eta Hizkuntza Politikako Saileko arduradunekin, adostu dugu gure jarduera ildoak bateratzea eta antolatzea laguntzei dagokienez, feria profesionaletara joateari dagokionez, eta hitzarmen eta akordioak sinatzeari dagokionez. Helburua da bikoiztasunak saihestea, baliabideak maximizatzea eta aurrekontu sailak berrantolatzea komenigarri ikusten den lekuetan, hartara eraginkorragoak izateko. Lan tekniko handia da. Ulertzen dugu jauzi kualitatibo bat izango dela koordinazioari eta eraginkortasunari begira, eta Etxepare Institutua 2010eko amaiera aldera abiarazi zenetik iraun duten desadostasun batzuk konponduko dituela.

### **3. IKUSGAITASUNA**

Etxepare Institutua sortzen duen legeak zehazten dituen zeregin batzuk betetzeko, Institutuak bere jarduera bideratzen du irakurletza eta katedren nazioarteko sarearen bidez, kultura sortzaile eta profesionalei eskainitako diru-laguntzen bidez eta beste erakunde publiko edo pribatu batzuekin aurrera eramaten dituen bakarkako ekintzen bidez. Hala ere, jarduera horrek duen dimentsioa ez da gustatuko litzaigukeen bezain nabarmena –baliabide mugak eta Etxepare Institutuak hartzen dituen alorrak askotarikoak izateak baldintzatzen dute–, eta horrek bere lanaren ikusgaitasunari eragiten dio. Horrela, atzematen dugu badela ekintza eta komunikazio estrategia bat diseinatu beharra, herri-irudi nabarmen bat proiektatzeko nazioarteko erakunde eta kultura panoraman.

Estrategia hori hiru lan ildotan garatu nahi dugu: euskal sortzaile, kultura profesional eta akademikoen nazioarteko sare bat garatu; formatu handiko eta nazioarteko inpaktua duten proiektuak ekoiztu, beste erakunde batzuekin lankidetzan; eta marka eta irudi plan bat garatu.

### **3.1. Sortzaile, kultura profesional eta akademikoen nazioarteko sarea**

Nazioartean eman duen sei urteko ibilbidean, Etxepare Institutuak harremanak egin ditu euskal sortzaile, kulturaren profesional eta akademiko askorekin munduan. Gure helburua da sare bat sortzea, orain arte sortu diren harremanekin eta egun Etxepareren inguruan ez dauden beste profesional batzuekin, zeinek lagundu baitezakete modu erabakigarrian jarduera zabaltzen. Gure asmoa da profesional horiek aktiboki bilatzen hastea, jada baditugun kontaktuen bidez eta ahaleginak koordinatuz Kanpo Harremanetarako Zuzendaritzarekin (urteak baitarama antzeko lan bat egiten Basque Global Network plataformaren bidez) eta nazioarteko talentua eskuratzen saiatzen diren beste erakunde batzuekin (Bizkaia:talent ekimena, adibidez, Bizkaiko Foru Aldundiak sustatzen duena). Gure helburua da komunikazio egonkor bat izatea profesional horiekin, egiten dugun nazioarteko lanean parte hartu dezaten, gure hizkuntza eta kulturaren enbaxadore gisa.

### **3.2. Nazioarteko inpaktua duten ekintzak**

Halaber, beharrezkotzat jotzen dugu nahiko tamaina handiko ekintzak ekoiztu eta antolatzea. Ekintzok medioetan oihartzun handia eta nazioartean inpaktua izan behar dute. Jakitun gara gure aurrekontuak mugak dituela, baina aukeren identifikazioa eta proiektuen kudeaketa lideratu nahi ditugu, betiere Kanpo Harremanetarako Zuzendaritzarekin batera eta Herrialdeko beste erakunde publiko batzuekin (foru aldundiak edo udalak, adibidez), zeinak, gaian eskumenik ez badute ere, nolabaiteko sentsibilitate berezi bat baitute nazioarteko proiektioan eta kanpo harremanetan. Orobat, ezinbestekotzat jotzen dugu indarrak batzea Herrialdearen traktore diren beste proiektu kultural batzuekin (Bilboko Guggenheim Museoa, Bilboko Arte Ederretako Museoa, Tabakalera edo Azkuna Zentroa), hartara baterako ekintza bat koordinatzeko, dela arte garaikidean, arte eszenikoetan edo euskal ondare historiko-artistikoan.

### **3.3. Marka eta irudi plana**

Gainera, marka eta irudi plan bat burutuko dugu. Horren bidez, euskal kultura modu egonkorrean proiektatu nahi dugu nazioartean, aldeztu aurretik definitutako balio batzuekin

bat etorri eta iraunkorki. Prozesu hori bi faseetan garatuko da. Lehen fasea 2017an zehar gauzatuko da, eta egingo dira: marka diagnosi eta auditoria bat (ez nahasi marka eta logoa), markaren definizio estrategikoa eta ikusizko sistema baten garapena. Markaren arkitekturari ere helduko zaio, eta euskal kulturak nazioarte mailan erabiltzen dituen marka ugariak berrantolatzeko proposamen bat egingo da. Bigarren fasean, 2018an, marka aktibatuko da komunikazio euskarrietan eta kostu-eragin errentagarritasuna handiena den harreman puntuetan, eta markaren kudeaketa aktiboko sistema bat ezarriko da. Toolkit bat ere garatuko da euskal kultura modu autonomoan (erakunde publikoekin zuzenean elkarlanean aritu gabe) proiektatzen duten eragile eta enpresa guztientzat eskuragai egongo dena.

Prozesu honek aukera emango du kulturaren sustapenean baliabideak eta ahaleginak hobetzeko, Etxepare Institutuak eta kultura alorreko gainerako eragileek kanpoan egiten duten lana hobeto kapitalizatzeko eta oinarri sendoak ezartzeko kulturaren irudi diferentzial bat, Herrialdearen irudian modu eraginkorrean laguntzen duena, eraikitzeko, Etxepare Institutuak duen misioari jarraiki.

## **4. DIPLOMAZIA KULTURALA**

Kultura eta Hizkuntza Politikako Sailak Etxepare Institutua jarri du kulturaren nazioartekotzerako eta kultura diplomaziarako tresna nagusi gisa.

### **4.1. EUNIC eta Kultura Diplomaziaren Europako Estrategia**

2017ko urtarrilaren 27an Legebiltzarrean izan zuen agerraldian, Bingen Zupiria Kultura eta Hizkuntza Politikako sailburuak hau esan zuen: “legealdi honetan Etxepare Institutuaren rola sendotuko dugu Euskadiren kultur diplomaziarako tresna gisa. Horretarako nazioarteko kultura sare strategikoetan Euskadiren herrialde mailako ordezkari zuzena bultzatuko dugu. Alegia, sare horietan, Euskadik, Etxepareren bidez, nortasun eta ahots propioa izatea, subjektu propio bat izatea.”

Sailburuaren hitzok kokatzen dira Etxepare Institutuak 2015ean abiatu zuen diplomazia ekintzan, Etxepare Institutuaren eta Euskadiko Europar Batasunerako Ordezkaritzaren arteko

lankidetzan estuaren ondorioz EUNIC sarean sartu zenean –Europar Batasuneko kultura institutu nazionala biltzen dituen sarea–. EUNICeko bazkide izatea mugarri bat da Etxepare Institutuaren ibilbidean, eta are garrantzitsuagoa da kontuan hartzen bada, egun, EUNICen dagoen institutu bakarra dela Estatu bat ordezkatzeko ez duena. EUNICek aukera ematen du Europako homologoekin harremanak izateko, eta bide berriak eskaintzen ditu euskal sortzaileen lana nazioartean zabaltzeko Bruselan koordinatzen den programazio zabalaren bidez. Ezinbestekoa izango da hurrengo urteetan Etxepare Institutuak EUNICen duen kokapena sendotzea, bertako kideekin duen harremana indartzea eta kultura proiektu berria lideratzea sarearen programazioaren barruan.

Halaber, EUNICek aukera ematen die Etxepare Institutuari eta Eusko Jaurlaritzari bere ikuspegi propioa ekartzeko Europar Batasunaren kanpo politikan kulturak duen rola inguruan eta kultura diplomazian Europak duen estrategian eragiteko. 2016an, Europako Batzordeak kultura Europar Batasunaren nazioarteko harremanen erdigunean jarri zuen, kultura diplomaziaren Europako estrategia bat aurkeztuta eta ekintza plan bat definituta.

Testuinguru horretan, eta eskualdeek Europaren kultura diplomazian duten rola inguruko eztabaida sendotzeko, RICC sareak (Regional Initiative of Culture and Creativity), Euskadiren lidergoa duenak Emilia-Romagnarekin eta Friuli Venezia Giuliarekin batera, datorren maiatzaren 22an konferentzia bat antolatuko du Bruselan gai horren inguruan. Bertan izango da Bingen Zupiria Kultura eta Hizkuntza Politikako sailburua, Europar Batzordeko eta Europako Parlamentuko ordezkariekin batera. Bertan izango da, orobat, Europar Batasuneko diplomaziaren buru den Federica Mogherini. Sailburuarekin lankidetzan, Etxepare Institutuak lagunduko du hitzaldi horretako interbentzioa definitzen, non eskatuko baita Europako erakundearen Ministro Kontseiluaren gomendio eta ondorioak betetzea kultura diplomaziaren Europako estrategian eskualdeek izan behar duten rolari dagokionez.

EUNIC sarea denez kultura diplomaziaren Europako strategiaren ekintza plana gauzatu duen erakundeetako bat, Etxepare Institutuak jarraituko du, hurrengo urteetan ere, bertan eragiteko lanarekin eta eskualdeek Europako diplomazian duten rola balioesten.

Orobat, EUNIC Kultura Diplomaziaren Plataformaren kontsortzioan dago. Plataforma hori Europar Batzordeak sortu zuen 2016ko martxoan Europako erakundeei nazioarteko kultura harremanetarako EBren estrategia ezartzen laguntzeko. Etxepare Institutuak buru-belarri lan egingo du Plataformaren ekintzetan eta beste eskualde edo Estatuekin lankidetzaren proiektuak abiarazten, hori sustatu nahi baitu plataforma horrek.

Azken urteetan gertatu den bezala, Euskadiren Europar Batasunerako Ordezkaritzarekin egiten den lankidetzaren eta baterako lana oinarritzekoak izango dira Etxepare Institutua EUNICen sendotzeko, beste sare batzuetan sartzeko eta Europako agendako jardueran eta ekintzetan parte hartzeko. Zentzu horretan, Etxepare Institutua oraintxe koordinatzen dabil Bruselako Ordezkaritzarekin batera balizko ekintza batzuen planifikazioa 2018an Kultura Ondarearen Europako Urteari begira.

#### **4.2. Mugaz gaindiko kultura lankidetzaren**

Europako sareekin ez ezik, Etxepare Institutuak beste sare batzuekin ere lan egiten du, euskal hizkuntza eta kultura sustatzeko eta zabaltzeko helburuak partekatzen dituzten EAETik kanpoko erakunde eta instituzioekin, hain zuzen ere. Horrela, Akitania-Euskadi Euroeskualdearen barruan (orain Akitania Berria – Euskadi – Nafarroa), Etxepare Institutua Aquitaine.eus proiektuaren kide da. Bertan, EKerekin (Euskal Kultur Erakundea) batera lan egiten du, eta xede du Ipar Euskal Herria eta Akitaniako eta Euskadiko kultur sortzaile eta eragileen arteko mugaz gaindiko harremanak eta elkarlana sustatzea, euskal kulturari Akitanian ikusgaitasuna emateko. Berriki, Nafarroako Gobernuak Euroeskualdean sartu da, eta horrek ondorio interesgarriak izango ditu 2018an akordioa berritzeko orduan; izan ere, lurralde horretako hirugarren erakunde batekin elkartzea eragingo du. Egun, Etxepare Institutua elkarriketak izaten ari da Nafarroako Kultura, Kirol eta Gazteria Sailarekin, Aquitaine.eus proiektuaren helburu eta lan ildoekin hobekien egokitzen den nafar erakunde bat identifikatzeko.

Bestalde, berriki Iparraldeko Herri Elkargoa sortu da, eta horrek ere lankidetzarako eta koordinaziorako aukera berriak eskaintzen ditu euskara eta euskal kultura munduan zabaltzeari eta sustatzeari dagokionez. Zein eskumen izango dituen noiz definituko den zain,

aurreikusten dugu lotura egonkor eta emankorrek ezarri ahal izango ditugula Mankomunitate horrekin hurrengo urteetan.